Garbiketa-zerbitzua LHKren Bilboko egoitzan

Oinarri teknikoak

Lan Harremanen Kontseiluak garbiketa-zerbitzua kontratatu nahi du bere Bilboko instalazioetarako.

Bulegodun solairu bat da garbitu beharrekoa, gutxi gorabehera 580 m²ko azalera duena. Ondo garbitu behar dira Kontseiluko gela guztiak, eta alderdi hauei erreparatu behar zaie bereziki, aipatzen den maiztasunarekin:

Egunero (4 ordu)

- Moketa-zoruak aspiratzea, eta orbanak garbitzea, halakorik bada.
- Komunetako zorua, konketak, komunontziak, ispiluak eta alikatatuak garbitzea.
- Paperontziak hustu eta garbitzea.
- Altzariak, mahaiak, aulkiak, telefonoak, pantailak eta kanpoaldetik armairuak garbitzea.
- Erabilitako baxera-piezak garbitzea, baita sukaldeko etxetresna elektrikoak ere (urtean bitan gutxienez desizoztu eta hozkailua garbitu).
- Bulegoko sarrera garbitzea (kristalak, kartelak eta sarrerako ateak).

Hilero

- Barruko eta kanpoko kristalak, manparak, koadroak eta aire girotuko arnasbideak garbitzea.
- Trastelekua garbitzea,-2 solairuan.

Urtero

- Maketa-zoruak garbitzea prozedura mekanikoak erabiliz.
- Argi-puntuak kanpotik garbitzea.
- Artxibo orokorreko apalen garbiketa osoa egitea.
- Leihoen barrualdea ireki eta garbitzea.

Ordutegiak

Enpresa esleipendunak garbiketa egin beharko du arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Langile espezializatuek garbitu beharko dituzte kristalak.

Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu zerbitzuak egiten dituzten langileei legeak ematen dizkien soldatak, gizarte-aseguruak, oporrak eta gainerako eskubideak. Eta enpresa esleipendunaren kontura izango dira, halaber, langileen segurtasunerako eta lanak behar bezala egiteko behar diren garbiketa-produktuak eta tresnak.

Egungo garbiketako langileak

- Kategoria: garbitzailea
- Antzinatasuna: 1993/02/22
- Lanaldia: 20 ordu astero
- **Egun aplikatzen den hitzarmena:** Eusko Jaurlaritzako garbiketakoa

Oinarri teknikoak

Lan Harremanen Kontseiluak garbiketa-zerbitzua kontratatu nahi du bere Bilboko instalazioetarako.

Bulegodun solairu bat da garbitu beharrekoa, gutxi gorabehera 580 m²ko azalera duena. Ondo garbitu behar dira Kontseiluko gela guztiak, eta alderdi hauei erreparatu behar zaie bereziki, aipatzen den maiztasunarekin:

Egunero

- Moketa-zoruak aspiratzea, eta orbanak garbitzea, halakorik bada
- Komunetako zorua, konketak, komunontziak, ispiluak eta alikatatuak garbitzea
- Paperontziak hustu eta garbitzea
- Altzariak, mahaiak, aulkiak, telefonoak, pantailak eta kanpoaldetik armairuak garbitzea
- Erabilitako baxera-piezak garbitzea

Hilero

- Barruko eta kanpoko kristalak, manparak, koadroak eta aire girotuko arnasbideak garbitzea
- Trastelekua garbitzea,-2 solairuan

Urtero

- Maketa-zoruak garbitzea prozedura mekanikoak erabiliz
- Argi-puntuak kanpotik garbitzea
- Artxibo orokorreko apalen garbiketa osoa egitea
- Leiho bikoitzak barrutik garbitzea

Ordutegiak

Enpresa esleipendunak garbiketa egin beharko du arratsaldeko 16:00etatik aurrera, eta kontuan hartuta bizi dugun osasun-egoera ziurgabea, gure bulego-ordutegiaren barruan noizean behin egin behar den edozein garbiketa osagarri ere sartuko litzateke ordutegi horretan, eta ohiko ordutegitik deskontatuko litzateke.

Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu zerbitzuak egiten dituzten langileei legeak ematen dizkien soldatak, gizarte-aseguruak, oporrak eta gainerako eskubideak, eta enpresa esleipendunaren kontura izango dira, halaber, garbiketarako produktuak eta lanak ongi egiteko behar diren tresna guztiak.

<u>Egungo garbiketako langileak</u>

- Kategoria: garbitzailea
- Antzinatasuna: 1993/02/22
- Lanaldia: 20 ordu astero
- **Egun aplikatzen den hitzarmena:** Eusko Jaurlaritzako garbiketakoa